ERREPORTAJEA GABONAK ERLIJIO DESBERDINEN IKUSPUNTUTIK · GEHIGARRIA 2002. URTEAREN ERREPASOA · KULTURA BERTSO SAIOA IZANGO DA GAUR, BARIXAKUA, HERRIKO ANTZOKIAN, 22:00ETAN


# BARREN
ASTEKARIA





# Gabonak eta erlijioak

"GABON! JAINGOIKUAK DEIGULA EMON" (esaera zaharra)

# Esperientziaren BALIOA



Utz iezaguzu gure esperientzia zure zerbitzura lartzen. Lan talde tekniko onena daukagu zure beharretarako. Enpresa moderno eta sendoa gara, eta zure arazoei konponbidea emateko aholkulari bezala garantia onenak eskaintzen dizkizugu . Hartu norabide zuzena. Utz iezaguzu guri zure aholkulariak izaten.

**Gabon zoriontsuak eta Urte Berri On denoi!**

*11.■

**Softlan**

analisia & programazioa

Antonio Arrillaga, 1
Tel. 943 74 81 05 » Faxa: 943 74 82 28
E-maila: info@softlan.biz
Web orria: http://www.softlan.biz

_lustondo, s.L.

EDARI BANATZAILEAK



*Monasterio Yuso kriantzak "Rotario" saria Log* 2. tez jeiVraian to7tu du

6 botitetako

- 3 et

kaxak restatzen aitut







Errioxako **David Moreno** bodegak

- Errioxako ardoak
- Urteko ardoak
- Kriantzak, erreserbak,...
- Cavak, "Jumes Serra", "Faustino", "Martinez", "Juve Camps"...
- Orujoak
- Kontzerbak



***San Roke, 32 - 34 Onstituta parean***

***Tet. 943 74 09 92***

PILAR IKASTETXEA
Elgoibar

GABON ZORIONTSUAK ETA
URTE BERRI ON





FINKAK

Aukera INMOBILIARIA

API

'346on xottiostomall etoot6otto otAANoti

**GESTIO LAN HAUEK EGITEN DITUGU:**

- **PISUEN, LOKALEN** eta **TERRENOEN SALEROSKETA** eta **ALOKAIRUA**
- **TASAZIOAK**
- **AHOLKULARITZA**

San Frantzisko, 56 . Tel./Faxa: 943 74 02 40

MAHASTI

*RIOJA seleccidin*

⁊47dozdice/itzdko *tyoko 6e29ia* *efikdr1(*

ARDOAK

3eurze kamboniko
*bearaza, eugesotha, emmeseukci*
- *San Asensio oRktak*
- TxuRiak,

*"Señokio Je Villamxtca"*
*"Don gcnienTino"*
ikltcia *t Baco"*
*"jukuino"*
*Cava "Arlioei" BRui NaTuge*



*gd6Oh Zo7iontsuak eljot6a7ta.7 luztioi!*

Barietizailea: *J* gel Zabala
Merkatu Plaza 3s 33-34 zenb. Tef. 615 76 03 72 aGO



Elgoibar B.H. Institutua

**Gabon - jai zoriontsuak eta 2003 urte berri on**

*aLagunak, musika, berriketa,*
*gure bizitzan atseginez*
*gozatzeko halnbat paraaaf*

2002-XII-20




## Ondo bukatu eta hobeto hasi

2002. urtea bukatzear da dagoenelo. Olentzerok prest ditu zakuan opariak, eta baita aurten gaizto portatu direnentzat ikatza ere.

Ezinbestekoa zaigu azken hamabi hilabeteotan gertatutakoari buruzko gogoeta egitea. 2002. urtea luzea izango zen batzuentzat, amaitezina agian. Hauek, baliteke, pozik begiratzea urte berriaren etorrerari. Beste batzuentzat motzegia izan da akaso eta ez dute amaitzerik nahiko.

Gauza ugari egin izango zituzten batzuek, urte hasieran jarritako helburuak betez. Eta beste askok, pentsatutako gauza gutxi batzuk egiteko denborarik gabe ibili dira urte osoan.

Lanean nagusiarekin muturtuta pasako zuten urtea batzuk, soldata igoera eskatu eta diru gehiago eman ez diolako, ordu gehiegi sartzen duelako edo beste edozein arrazoirengatik. Beste batzuk lan berria topatuko zuten, pozteko motiborik ez zaie faltako hauei.

Batek baino gehiagok, lagunik onenaren urtebetetze eguna ahaztuko zuen, eta alperrik da pasa ondoren akordatzea, lagunak ez baitzuen oparirik edo zorion kanturik jaso bere garaian. Beste askok bizitzako ospakizunik garrantzitsuena izango zuen aurten.

Ahazteko urtea izango zen batzuentzat, besteentzat, ordea, ahaztezina. Onerako edo txarrerako, 2002. urteak eman du berea. Beti bezala, baina txarrenak ahazten saiatuko gara, eta datorren urtea, hobea, edo gutxienez aurtengoaren modukoa izan dadila eskatuko dugu. Izan ere, txarraren ondotik ona beti estimatzen da. BARRENetik aholku bat: urte zaharra ondo bukatu eta berria hobeto hasi. Zorionak eta urte berri on!

BARRENeko lantaldea

C".)
Cf)
-aT
O
O
N'
5·



## Urtea=365 egun

Gabonak gainean ditugula, orain, ekintza onak egiteko eta poza banatzeko garaiak direla esaten dute. Telebistan eta gure gutunontzietan erregaluak eta dirua gastatzeko arrazoi eta aukera amaigabeak ditugu. Beraz, Gabonak, Olentzero eta erregeak denak batera ospatzea ezinezkoa zaigu. Baina urteak 365 egun ditu, egun bakoitza 24 ordukoa. Beraz, zergatik egon garai hauen zain eta dirua oparietan gastatzeko prest. Ez al ditugu urteko beste egun guztiak erregaluak egiteko? Dirurikgastatzea ez da beharrezkoa, are gehiago, hori da behar ez duguna. Opariek ez dute erregalu paperik behar, erregalua bera bakarrik nahikoa da.

Urte osoa aurretik edukita, egun labur txiki batzuetarako enpatxu handiegia dagoela iruditzen zait eta tamalez, batzuetan ez gara horretaz ohartzen. Beraz, ez ditzagun indar guztiak Gabonetan xahutu eta gorde ditzagun indar apur batzuk urteko beste egunetarako. Ikusiko duzue zeinen onuragarria den.

Eguneroko bizimoduan esaten dudanaren adibide argi eta handia dugu: NATURA, berak dena ematen digu ezer esan gabe eta, aldiz, berak ezer ere trukean espero gabe. Hori da gizonen zentzua gidatzeko beharrezko gakoetako bat.

Jokin Martinez

leen aukeraketa egiterakoan,
xandan idazten dute. Kol
nahi duena aukeratzen du.


Kexak 7

motz MOtZ .......... 10

uRTekAria .......... 15

kulTurA .......... 51

aGenda .......... 54

## Oharra

BARRENeko 427. alean "Gurean bai — Merkataritza" erreportaia kaleratu genuen. Erreportaia horretan, Iriondo Kirolak dendako Miriam Iriondori egindako elkarrizketa azaltzen da. Bertan azaldutako esaldi hau: "Gainera, kanpoko jende asko etortzen da, Mutriku edo Azkoitxi aldetik, eta horiek ez dakite erdaraz" ez da zuzena. Horren ordez, beste hau jarri beharko luke: "Gainera, kanpoko jende asko etortzen da, Mutriku eta Azkoitxi aldetik, eta horiek nahiago dute euskaraz jardutea".

**JUANJO IBARRETXE ESPAINIAK HIRU PROBINTZIETAN DUEN ENBAXADOREA NAIZENEZ HAU HELARAZI NAHI DUT:**

Abenduaren 22an ETA Kanpora manifestazio autonomikora etortzeko gonbidatzen zaituztet. Beraz, PPko neo-frankistak eta PSOE-G.A.L-eko kideak gonbidatuta zaudete. Hemen demokrazian bizi gara. Hemen ez dago ez torturarik, ez manifestazio debekurik; BASTA YA e.a. adibide bezala eta ideiak guztiak defendatu daitezke askatasun osoz. Hemen oztopo bakarra ETA eta bere ingurunea dira, beraien ideia independentistak eta marxistak.

Nire proposamenak bakea ekarriko du, nahiz eta ezker abertzaleak kartzelara edo heriotza zibilera bultzatu. Nire proposamenarekin EUSKAÑOLAk izango gara, hiru probintzietako EUSKAÑOLAK.

Guk Garzonek eta Espainiak agintzen dutena beteko dugu, egoitzak itxi, manifestazioak debekatu, jendea jipoitu, atxilotu eta kartzelaratu. Hala ere, uste dugu ezker abertzaleko botoak gureganatuko ditugula gu baikara abertzale zintzo eta demokratak.

Gezurra borobila da ertzaintzak torturatzen duela. Esan beharra dago komisarietan sagardotegiak zabaldu ditugula eta jakina, ertzainak eta atxilotuak jardun eta jardun beraien artean eta sagardo batzuk edan eta gero ba... konfiantzak, konfidentziak; eta norbait labaintzen denean ba ospitalera eraman behar.

Honek barregura sortuko luke Ibarretxek prakak eransten dituen bakoitzean euskaldun bat atxilotu, jipoitu, torturatu edo Gil Ostolazaren kasuan bezala hilik suertatu ez balitz. Ibarretxeren proposamenak ez du ekarriko BAKEA, elkarrizketa eta jarrera soberanista gehiago baizik eta SUJETO NAZIONALA Euskal Herri osoa da eta ez soilik hiru probintziak.

Ibarretxeren zeregina ez da manifestazioak antolatzea, soluzioak bilatzea baizik. Bestela noizko manifestazio bat Espainia eta Frantziaren inposaketaren aurka?

Zein erraza eta komodoa den bata eta besteari kritikak egitea, gatazkaren erdian kokatuta egonda eta gatazkaren ondorio latzenak jasaten ez diren bitartean.

I.K.C.

NAN 15357494

# Urruzunoren
## begi ezkutua
### Margolaria



Kalearen ertz batean eseritzen zen egunero, pintzela hartu eta aurrean zeukan paisaia margotuz. Paisaia urbano eta arrunta zen, eraikinen hanketan luzatzen ziren espaloietan jendearen joan-etorriak automobilekin nahastuak agertzen zirelarik. Baina margolari hura toki berdinean egoten zen beti, eguna argitzean zuria zeukan orria eguzkia joaten zenerako erabat betetzen zuelarik.

Margolariaren jokabide harekin harrituta, jende mordoska batek eguna amaitzerako haren bizkarrean biltzeko ohitura hartu zuen eta hamaika diskusio sortzen ziren margolari haren arrazoi eta motiboak azaldu nahiz. Inork margolariari zerbait galdetuz gero, honek irribarre arin eta ironiko batez begiratzen zion, galdegilea eta inguruko guztien jakinahia eta eztabaida areagotuz.

Iluntzean, gauza guztiak jaso eta irribarretsu joaten zen etxera margolaria. Egunean zehar margoturiko orria zakarrontzira bota eta beste orri zuri bat ateratzen zuen. Bertan, egunean zehar entzundako guztiak idazten zituen eta egunero hazten zihoan orri piloaren gainean jartzen zuen.

**Iffigo Otaño**

ASTEKARIA

BaRRen

Natarrua eriparaniza
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12
Publizitatea:
n 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.cornibarren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KoonoturzAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea KAZETARIA Irati Aginazaldegi, PUBUZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue ADMINISTRAZIOA Amaia Rodrigez GERENTaA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pelb Mendizabal, Juan M. Elustondo, Alberlo Ansuategi, Edume Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorosliza, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZANARRA Gotzon Garateren liburutik INPRINATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.100 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ELGOIIARK0 IZARRA
LU17112 ltIARTIA

*Elgoibarko Udalak, Eadco Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

411³ kutxa
zun esker

1DANOBAT
MAQUIHAS HEPP0212H.

GOITI
GRUPO DANOBAT

EITASARTA

## KEXAK

Herritar batek esan digunez, **jendeak ez ditu arauak errespetatzen eta edozein moduz aparkatzen ditu autoak bere etxe aurrean, Plaza Txikian. "Haur** txiki bat dut eta askotan altzoan hartuta atera behar izaten dut portaletik, kotxetxoa ateratzeko lekurik ez baididate lagatzen espaloi gainean gaizki aparkatzen duten autoek. Behin eta berriz egiten dutenez, isunak jartzea izan daitekeela soluzio posible bakarra uste dut".




Emakume batek, **Txankakuako zubian atzeraka sartzen diren autoak salatu nahi ditu: "kotxeak** atzeraka sartzen dira zubian aparkatzeko, eta oso arriskutsua da. Ume asko ibiltzen da bertan jolasten, eta oso txikiak dira kotxeko ispilutik ikusi ahal izateko. Behin ia nire semeak harrapatu zituzten, eta hurrengoan beste haur batzuk izan daitezke".



• Urasandiko auzokide batzuk esan digutenez, **eskailera mekanikoak askotan geldirik egoten dira: "dirudienez,** umeek "stop" botoiari ematen diote, eta eskailerak geratu egiten dituzte. Honetaz gain, askotan izorratzen dira; batez ere, euria egiten duenean. Eta konpontzen denbora asko tardatzen dute".

## TXALOAK

• Emakume batek **Udaletxeko Brigada txalotu nahi du, Plaza Handiko zuhaitzak aldatu zituztelako: "Zuhaitz** guztiak okertuta zeuden, eta aldatzeko premia zeukaten. Orain Plaza Handia dotoreago ikusten da, eta txalotzekoa da Brigadaren lana".



Barrak, Birrak eta Barreak




© KOKOE 2002

# ERLIJIO BAKOITZAK



*Erlijio, kultura eta adin desberdinetakojendea bildu zen Aubixa baserrian Gabonei buruz hitz egiteko.*

**PASA DEN ABENDUAREN 7AN MAHAI INGURU BITXI ETA INTERESGARRIA IZAN ZEN SAN PEDROKO AUBIXA BASERRIAN. BERTAN ADIN, SEXU ETA ERLIGIO EZBERDINETAKO HAINBAT PERTSONA ELKARTU ZIREN GABONEI BURUZ DITUZTEN IKUSPUNTU EZBERDINAK AZALDU ETA EZTABAIDATZEKO. BESTEAK BESTE EMAKUME BUDISTA BAT, GIZONEZKO MUSULMAN BAT ETA EZKONTZEA ERABAKI ZUEN APAIZ KATOLIKO BAT ELKARTU ZIREN. BARRENEKOOK ERE BERTAN IZAN GINEN ETA KULTURA ETA ERLIJI0 DESBERDINETAKO PERTSONEK NOLA BIZI DITUZTEN GABON JAIAK JAKIN NAHI IZAN GENUEN.**

Gabonek duten kutsu erlijiotsuaz gain, garai honetan ospatzen dena, soziabilitatea, ez da mendebaldeko kultura honetako kontua bakarrik, munduko kultura guztietan ospatzen baita bereziki urte-sasoi jakin bat, eta jendeak harremanetarako, dibertitzeko eta opariak trukatzeko aprobetxatzen du leku gehienetan.

Eguberria trukearen zeinua da (opariak, mesedeak eta abar), gainera harremanetako joera areagotzea eragiten du. Ia edo erabat galduta zegoen adiskidetasun han•emana berreskuratu egiten da aldi baterako eta, jakina, familiako loturak estutu egiten dira. Gabonen ezaugarririk nagusiena adiskide arteko eta familiako harremanak sendotzea da. Bestea opariak trukatzeko ohitura da, baina hori ez da gure gizarteko kontua bakarrik. Munduko kultura guztietan edo ia guztietan gertatzen da, urteko garai batean edo beste batean. Beraz, Eguberria eta egun horietan egiten dena ez da gure kulturan bakarrik ospatzen. Unibertsala dela esan dezakegu.

**Eguberria trukearen zeinua da eta harremanetarako joera areagotzen da**

Horren ondoren, kultura bakoitzak zera erlijioso edo mistikoa eransten dio ospakizunari, baina horren aurretik esanahi soziala dago. Gainera, gaur egun ospatzen dugun Eguberriko festak, ez du mende bat baino gehiago.

## NOIZTIK OSPATZEN DIRA GABONAK?

Kristau aroan, 274. urtean, Aureliano erromatarren enperadoreak abenduaren 25ean jarri zuen Eguzkiaren jaiotza eguna, eta laugarren mendeaz geroztik Elizak abenduaren 25ean Jesusen jaiotza ospatzen du. Bestalde esan beharra dago, 377. urtera arte Eguberri eta Errege jaia egun berean ospatzen zirela baina geroztik banatuta ospatzen dira. Euskal Herriko Gabonak neguko solstizioaren bamean ospatzen dira.

# BERE GABONAK

## NOLA ULER DAITEZKE GABONAK?

Segur aski, solaskidearen araberakoa izango da erantzuna, bere erligio-sinismen, jatorri eta kultura mailaren araberakoak

Historiari begiratzeak, hala ere, ikuspegi zabalagoa eskaintzen digu Eguberriei buruz eta sorreratik gaur arte, esanahia huts-hutsean erlijiosoa zenetik gaur egun arte herrialde bakoitzean izan duen bilakaeraren berri ere ematen digu. Beste kultura batzuetara, beste herrialde batzuetara begiratu eta berehala ohartuko gara erlijio-ospakizunek eta jai herrikoiek zerikusi gutxi dutela planetako bazter honetan Gabonez dugun kontzeptuarekin.

### GABON MUSULMANAK



*Abdelhak Hadada*

Musulmanek es dute Ala edo Mahoma bere profetaren jaiotzarik ospatzen, baina Mahoma profetak La Mecatik Medinara emigratu zuen eguna ospatzen dute. "Emigrazioaren Eguna deitzen da eta eguberri egunarekin konpara daiteke nolabait. Dena dela, ez dugu afaririk ez kanturik egiten. Jendea meskitetara joaten da edo Coran-eko esaldiak errepikatzen dituzte". Dena dela, musulmanen artean bada urte berriaren etorrera ospatzen duenik ere, urtarrilaren lean. Abdelhak-ek azaldu digunez, familia guztia batu eta era guztietako ogi eta opiltxoak egiten dituzte eta fruitu lehorrak jateko ohitura ei dago.

Musulmanek ez daukate Gabonik, baina 9. hilabetean (egutegi islamikoaren arabera) Ramadan-a ospatzen dute. Urteko hilabeterik garrantzitsuena da mundu osoan dauden mila milioi musulmanentzat. Barne erreflexiorako garaia da, autokontrolerako eta jainkoari eskaintzeko. Dena dela, musulman bakoitzarentzat esanahi ezberdina du Ramadanak. Besteak beste, eguzki ordutan barauldia egin behar dute eta Coran edo liburu sakratuko pasarteak behin eta beniz irakurri.



### GABON BUDISTAK



*Begoña Guerras*

Begoña Guerras donostiarrak kasualitatez izan zuen Budismoaren berri liburu bati esker duela 10 urte, "erlijio katolikoan hezi naute, baina ez nuen praktikatzen iruzur egin zidatela sentitzen bainuen". Ez da budista kontsideratzen, zaletua baizik. Gehien erakartzen duena "izaki bizidun guztiekiko budismoak azaltzen duen errespetua da eta ez dela inor ezertaz konbentzitzen saiatzen". Budistek ez dituzte Gabon jaiak ospatzen. "Ez dute Buda jaiotza batean jartzen, besteak beste, Shiddartha Gautama (Budaren izena) heldua izanik jaio baitzen". Bestalde, urte berrian sartzean egiten den jaiak izan dezake antzik mendebaldeko Gabonekin. Budisten egutegiak 13 hilabete ditu eta otsailean sartzen dira urte berrian. Dantza, abesti eta erritoekin ospatzen dute famili giroan. Mendebaldekoak baino ospakizun apalagoak izan oi dira". Jaiotza eta zuhaitza jartzen ditu etxean, baina esanahi erlijiotsurik gabe "esanahi magikoa dute niretzat. Txikitako oroitzapen asko datozkit gogora eta emozionatu egiten naiz. Gabonetako izpiritua gauza bat da eta erlijioa beste bat".



### GABON KATOLIKOAK



*Enrike Larrañaga*

Enrike Larrañaga elgoibartarra ezkontzea erabaki zuen apaiz ohia da. Bere iritziz Gabon garaia zoriontasunaren bila jarraitzeko une aproposa da. "Kultura eta beste hainbat gorabeheren arabera modu batera edo bestera ospatzen dituzte Gabonak erlijio desberdinek, baina denek bilatu nahi dute zoriontasuna. Gure aurretik bizi izan diren gizaki guztiek, orain bizi garenok eta gure ondoren etorriko direnek zoriontasuna lortu nahi dute. Zer da zoriontasuna, ordea, existitzen al da? Baietz uste dut, bestela absurdo bat litzateke zoriontasun egarri hori izatea. Zoriontasuna norbere buruarengan bilatu behar da eta isiltasunaren bidez lortu behar da. Isiltasunean bakarrik egin dezakegu bat gure buruarekin. Hain zuzen, hauxe da gure gizartearen arazo nagusia, isiltasunik ez dugula egiten, alegia"



## San Pedrotik Lerunera bitarteko oinelloenizako zubia inauguratu dute

### Ufalen arriskua ebitatzea da zubia eraikitzearen arrazoia

Joan den abenduaren 5ean inauguratu zuten San Pedroko etxeetatik Lerunera doan oinezkoen pasabidea. Zubi berria ufalak ebitatzeko eraiki dute. Izan ere, trenbideko zubi zaharra botata oztopo gutxiago topatuko ditu ibaiko urak bidean. Gainera, zubia dagoen inguruan ibaiaren ibilgua zabaldu egin dute, lehen 20 metro zabal zenak orain 40 metroko zabalera du.

Aldaketa hauek ufalen arriskua gutxitu dute San Pedro inguruan. 1988, 1983 eta 1953ko ufaletan urak etxeen paretik 2 metro gora egin zituela jakinda, oraindik ere euri asko eginez gero iritsi daiteke San Pedroko etxeetara, baina uraren maila bi metro jaitsi da. Zubiaz gain, ibaiaren eskuin aldean bidea egin dute ibaira iristeko, eta baita ingurua landareztatu eta urbanizatu ere.



*Udaleko ordezkariekin, Sabin Intxaurraga, Lurralde Antolaketa eta Ingurugiro Saileko kontseilaria izan zen.*

Zubi honen aldaketa, ordea, ez da ufalak ebitatzeko egingo den gauza bakarra. Deba ibaia herriko erdigunetik igarotzen den lekuetan berrikuntzak egingo dituzte aurrerantzean. Sigmako, Merkatu Plaza osteko eta Melitongo zubiak ordezkatu egingo dituzte, baita melitongo presa bota ere. Obrak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro Sailak ordainduko ditu.

Kolektorea

Deba ibaian ufalak ebitatzeko zein ura garbi mantentzeko lanetan ari dira azken aldian. Helburu horietako batekin eraikitzen ari dira, hain zuzen ere, kolektorea. Soraluze, Ermua, Mallabia, Eibar eta Elgoibarko ur zikinak bildu eta Apraizko depuradorara eramango ditu kolektore honek. Bost kilometroko luzeera izango du eta ibilbide gehiena ibaiaren eskumako aldetik egingo du.

## Jaiotza lehiaketan 31 lanek hartu zuten parte

### Prestige itsasontzia irudikatu zuten plastilinaz egindako jaiotza batean

San Bartolome Parrokiako Katekesiak antolatuta jaiotzen lehiaketa izan zen igandean, abenduaren 15ean. Jaiotza mundua ongi ezagutzen duten epaimahaikideek 31 lan ikusi ostean eman zuten beraien erabakia jakitera. Dorleta Fernandez, Iker Fernandez, Eider Garcia, Aitor Garcia eta Nora Kortaberriak osatutako taldea izan zen irabazlea. Perretxiko bat jarri zuten estalpetzat eta erregeak barraskilo handi batzutan ipini zituzten, fantasiazko jaiotza irudikatuz. Bigarren saria Joana eta Itxaso Rodriguezek irabazi zuten eta hauek spaghetti eta makarroiak erabili zituzten. Hirugarren postuan Eneritz Mella sailkatu zen.



*Dorleta eta Iker Fernandezek, Eider eta Aitor Garciak eta Nora Kortaberriak osatutako taldea izan zen irabazlea*

Kolektorea

Haurrek irudimena soberan dutela erakutsi zuten. Izan zen, egunerokotasuna bere lanean islatu zuenik. Jaiotzetako batean Prestige itsasontzia ikus zitekeen inguruan mantxa beltza zuela eta errege magoak bertan geldialdia eginez, laguntza eskaini nahian-edo.

31 lan aurkeztu bazituzten ere partaideak 90etik gora izan ziren eta guztiek jaso zuten beraien oparia. Sari banaketaren ostean, lanak Santa Ana kaleko Anchstegui zeramikak denda zegoen lokalean jarri zituzten ikusgai.

## Gurutze Gorriak jostailuak banatuko ditu herriko familia behartsuetan

Gabonetan haurrak olentzero edo erregeak noiz etorriko eta zein opari ekarriko dieten zain egoten dira, baina etxe batzutara ez dira opariak iristen, gurasoek ekonomikoki ezin dutelako. Hori gerta ez dadin Gazteen Gurutze Gorriak jostailuak biltzeko kanpaina egin du. Abenduaren 9 eta 13a bitartean jostailu mordoa batu dituzte Gurutze Gorriko lokalean. Kamioaiak, pelutxeak, mahai jokoak, liburuak, patineteak... Ongizate Sailarekin elkarlanean herrian behar gehien duten familiako arduradunari ematen dizkiete jostailuak, hauek haurrei helarazteko. Kanpainaren arduradunak esan digunez, "gure helburua denek Gabonak ilusioz ospatzea da eta ilusioa opariek sortzen badiete, gu hauek ematen saiatuko gara".





## Urasandiko eskailera mekanikoak geldirik egon dira astebetez

Abuztuan poz handiz hartu zituzten Urasandiko bizilagunek eskailera mekanikoak. Ia 4 hilabete beranduago, ordea, kexu dira. Izan ere, lau eskailera tramoetatik hiru geldirik izan dira. Abenduaren 5ean ekaitza zela-eta argia joan zen eta ordutik abenduaren l lra arte eskailerak ez zituzten konpondu. Bizilagunen esanetan, hau ez da eskailerak geratu eta teknikoak konpontzera etorri diren lehen aldia, baina oraingoan denbora luzez egon dira geldirik. Berriz martxan dauden arren inork ez daki noiz arte.

## Perurako iaz baino diru gutxiago bildu du Miski taldeak

Miski elkartasun taldeak Peruko Cusco herrirako dirua bildu asmoz kanpaina antolatu du aurten. Baina diru bilketa, iazkoarekin konparatuz oso urria izan da. 10 eta 50 euroko bonoak ipini zituzten salgai baina jendearentzat garestiak dira nonbait eta apenas saldu dira. Bestalde, dendetan itxulapilcoak jarri dituzte Perurako dirua biltzeko. Gemma Agirregomezkortak eskutitzak bidali dizkie herriko merkatari eta enpresariei dirulaguntza eskatuz, baina erantzunak banan-banan jaso ezin dituenez, bonoak erosteko deia luzatu nahi die guztiei. Beharra oso larria dela azaldu digu eta elgoibartarren elkartasuna eskatu du Peruko herri pobreei laguntzeko.



## Aurten ez da Gabon kantarik entzungo herriko kaleetan

Gabonak heltzear direla-eta jadanik piztu dituzte Gabonetako argiak herriko kale eta auzoetan. Aurten, ordea, ez dugu Gabon kantarik entzungo bozgorailuetatik. Azken urteotan musika entzun dugu herriko erdigunean Gabonetan geundela iragarriz, baina bozgorailuak etxetik gertu zituen hainbat herritarren kexak direla-eta aurten ez jartzea erabaki dute. Izan ere, egon zen kableak moztu eta bozgorailua kalera bota zuenik. Beraz, Gabon kantak herritarrek abestuta entzungo ditugu Olentzero Egunean, eta megafonia Gabon Zahar Ferian baino ez da izango, abenduaren 28an. Argiak, berriz, urtarrilaren 17ra arte egunero piztuko dituzte.

## Emakumeen tratu txarren aurkako agiria onartu zuten plenoan

Joan den azaroaren 25eko emakumeen tratu txarren aurkako egunaren harira, Elgoibarko Udalak emakumenganako tratu txarren aurkako idatzi bati baiezkoa eman zion azken plenoan. Bide batez tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei laguntzeko asmoa azaldu zuen. Era berean herritarrei emakume hauekiko elkartasuna adierazteko deia luzatu zien. Batasuna ere agiri honen alde azaldu zen, baina gaineratu honakoa nahi izan zuen: "Emakumeen aurkako biolentzia emakumeak bigarren mailan jartzen dituen sistema patriarkalaren ondorioa dira".

# GALIZIAKO ARRANTZALEEK IZANGO AL DUTE GABONAK OSPATZEKO MOTIBORIK?



### JAVIER VITERI
65 urte, jubilatua

Ez. Denak etsita daude. Garrantzitsuena dena garbitzea da. Luzerako kontua izango da, itsasoa garbitu arren ere, ingurune guztia kutsatuta gelditukо da, eta ez dute ezer ospatzeko gogorik izango.

### FERNANDO EIZAGIRRE
65 urte, jubilatua

Ez. Gauzak gaizki ein dia itsasontzi horrekin, eta kaltia einda dao. Galiziarren lekuan egonda, inork ez luke Gabonak ospatzeko umorerik eukiko.





### ANGELES ORTUOSTE
53 urte, inmobiliaria

Ez dot uste, larrixa izan da han pasau dana, eta ez dabe ezertarako umorerik eukiko. Marea beltza garbitxu biharko dabe Gabonetan, eta ospakizunak beste momentu baterako laga.

### MIKEL BAKERIZA
22 urte, ikaslea

Ez. Itsasotik bizi dira, eta gertatu dena oso gogorra izan da beraientzat, Nire aita ere arrantzalea da. Hemen lasai daude oraindik, baina oso ondo ulertzen dugu Galiziako egoera. Luze joango dira garbiketa lanak.





### MARGA RODRIGUEZ
33 urte, medikua

Ez, galiziarrentzat Gabonetako erregalorik onena itsastiko marea beltza garbitzia izango litzateke, baina hori ez da epe laburrian lortuko, 3 edo lau urte biharko dia gutxienez.

### MARIA OTERO
53 urte, etxekoandrea

Motiboak bilatu egin behar dira. Gauzak beltz daude Galizian, baina norberak ipini behar ditu Gabonak ospatzeko motiboak. Ni galiziarra naiz, eta gauzak positiboki ikusten saiatzen naiz, bestela ez dago zereginik.



Anchiistegui
Sanyfer

ESPOSIZIOA
ALMAZENA
BULEGOA

Olaso industrialdea
Olasope, 5 • 20870 - ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 - 74 23 71
Faxa: 943 74 37 11

MARA
Dinetakoak eta osaqarriak
Abenduan...
Aukera zabala ETXEKO ZAPATILETAN
prezio - kalitate onena
4 EUROTIK GORA
ZATOZ IKUSTERA!!!!
San Bartolome, rrosario kalerako pasabidean) el.: 943 74 1.4 76

# GREIVIOEN GIDA

## AROZTEGIAK

**ARANZADI**
Olaso 55 - CH
Ir 943 74 34 78
z' 670 42 76 63

**BIENA**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
943 74 31 16

**GARCIA**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
w 943 74 32 38

**LODOSO**
Leihoak
Sigmako industrialdea,
Xixilion 2- 2. pabiloia 3. zenb.
s' 943 74 34 90

**LURRA**
Santa Klara, 28 Behea
943 74 40 50

**SORALUZE**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
*zr 943 74 36 34

**ULAZIA**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
943 74 05 47

**ZABALA**
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
Tr 943 74 03 96

## ERREFORMAK eta PROIEKTUAK

**ETXEKIT**
Antonio Arrillaga, z/g
943 74 43 47

## ITURGINTZA

**ANGEL**
Santa Ana, 5
z' 943 74 17 61
689 04 92 06

**ONGI**
Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
"zr 943 74 28 80

**PAGOAGA**
San Antolin, 13
tr 943 74 02 79

**TELLABIDE**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
"a 943 75 50 62
"a 607 75 50 62

**ZALDUA**
Urasandi, 26
-17 943 74 05 30

**ZUBIZARRETA**
Ubitarte, 5
17 943 74 07 89
12 608 14 30 40

## PINTURAK7--

**BIOK DEKORAZIOA**
Santa Klara, 11 behea
'w 943 74 15 52
w 606 43 11 19-20

**IPINTZA**
Foruen enparantza, 4
s' 943 74 04 40
13' 607 74 04 40

## PROIEKTUMEAK

**JESUS Mg GABILONDO**
Ubitarte, 4-5 esk.
670 41 20 73

## ELEKTRIZITATEA

**ARAMAR**
Morkaiko, 1
z 943 74 12 80

**AZPELETA**
San Frantzisko, 51
zr 943 74 12 38

**JOSEBA**
Pedro Muguruza, 29
1:1 943 74 09 02
659 93 49 64

**URZELAI**
Santa Ana, 12-14
z' 943 74 13 76

## IGELTSERITZA

**ANTONIO MARKEZ**
Urasandi, 24
tr 943 74 34 18

**ASKETA**
Osio, 7 DEBA
"er 629 34 43 89

**JOSE LUIS MENDEZ**
Urasandi, 24
.23- 943 74 29 87
e• 679 19 77 47

## ISOLANIENDUAK

**GLAS CONTROL S.L.**
Inpermeabilizazioak
Olaso 27, 47. pabiloia
15. 943 74 30 94

# M ni A71

## *Uste duzuna, bcano*



**Amaia** FRUTADENDA



**Arantxa** eta **Marian** FRUTADENDA



**ART-FRUIT** FRUTADENDA



**IBARRE** OKINDEGIA



**FRAILE** HARATEGIA



**Amparo eta Inma** HARATEGIA



**M. Angeles** FRUTADENDA



**TXIRIBOGA** TABERNA



**Zabala** FRUTADENDA



**Zabala** URDAITEGIA

*gadon zoiziontstuth danctid*

# 2002

BARREN
ASTEKARIA

# URTIARI ERREPASUA

2002 2002 2002 2002 2002 2002 2002 2002 2002 2002 2002 2002 2002 2002

## URTARRILA



**Urtarrilak 1**
**EUROAREN ETORRERA.**
Urte berriarekin txanpon berria iritsi zen gure artera.



**Urtarrilak 22**
**SAN ROKEKO ERMITAN MARGOLAN BERRIAK AURKITU ZITUZTEN**



**Urtarrilak 17**
**GORATU ENPRESAK PABILOI BERRIA INAUGURATU ZUEN LERUNEN.**



**Urtarrilak 24**
**PARKE EOLIKOA**
Irukurutzeta eta Karakate artean parke eolikorik ez eraikitzea erabaki zuten inguruko alkateek.


IDEKORAZIOA
MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.
San Roke , 7 behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70

S.L
• ELKARTEEN ALDAKUNTZA ELKARTZE ETA ERAKETA.
• LAN, KONTABILITATE eta FISKAL AHOLKULARITZA.
• ALOKATZE KONTRATUAK
• JUBILAZIOA (Pentsioak)
P. M. Urruzuno, 6. Tel: 943 74 31 40 Faxa: 943 74 41 23



Pedro Muguruza, 5
Tel: 943 74 08 06
20870 ELGOIBAR

PROTAGONISTAK

PROTAGONISTAK



**ABRHAM CHEBIL**

**Mugerza Krosa**
31:53 denboraz, 22 urteko korrikalari keniatarra, 2. aldiz Mugerza Krosa irabazi zuen. Momentuko atletarik indartsuena dela eta zeresan handia emango duela frogatu zuen.



**OLEG KORNEV**

**Xake txapelketa**
Jokalari errusiarrak 2. urtez jarraian irabazi zuen Elgoibarko Nazioarteko Xake bmpelketa. Oleg Korneev berak aipatu zuenez, gehien kostatako garaipena izan zen.



**MARKEL BERGARA**

**Espainiako futbol selekzioan**
Futbolari elgoibartarrakl 5 urtez azpiko Espainiako futbol selekzioan jokatzeko probak egin zituen Madrilen. Espainia guztiko 72 jokalari izan ziren bertan, eta 24 izan ziren aukeratuak.



**EDU ARRILLAGA**

**"Sokamuturra" erakusketa**
Argazkilari elgoibartarraren "sokamuturra" erakusketak errekor guztiak hautsi zituen. 3.200 bisitari izan zituen erakusketak, eta argakilariak bere herrian profeta izatea lortu zuen.

URKIDI AHOLKULARITZA
KONTABILITATE
LAN
FISKAL
Kalamua, 12 ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91
TH E TART F(1R 11
ASEGURI i A K

Arrie
San
karkizano
San Frantziskn, 14 - Tel, 943 74 05 49

BOUTIQUE DEL PAN
Enpanadak Enbutidoak
Baserriko ogia Bolleria
San Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 Tr 943 74 33 92

IriOndO TABERNA
Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan
Pedro Muguruza, 2 • Tel: 943 74 00 15



**Otsailak 1**
**GESTIO ESKOLA ETA MONDRAGON UNIBERTSITATEKO** arduradunek elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten Udaleko pleno aretoan.



**Otsailak 14**
**10 EMAKUME KILIMANJARORA**
Kilimanjarora joandako 10 emakume elgoibartarrek Emakunde Saria jaso zuten Donostiako Kursaal Jauregian.



**Otsailak 20**
**LEHEN HIZTEGI TEKNIKOA**
Euskaratik 4 hizkuntzatara, lehen hiztegi teknikoa kaleratu zuen Kondia enpresak.


BUKATU S.COOP
at.t4oti•t4 v. ept.p.
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR
MEKANIZATUEN TAILERRA

<=ii• JOSE p/4/0at
(Txema)
Mota guztietako pintura
eta enpapelatuak.
Zoluak, moketak, sintasola,
kortxoa, etab. jartzen dugu.
San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

5.2E11/4
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 Tr 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



**Otsailak 8**
**SINOUSEN KONTZERTUA**
Sinuose, Herriko Artisten Kolektiboak kontzertua eskaini zuen Herriko Antzokian. Musika, irudiak, diseinua eta eraikuntzak batu zituzten ikuskizunean.



**LUTXI ARREGI**

**Ongarri Zine Klubeko bozeramaile berria**
Udaleko Kultura Sailak eta Ongarri Zine **Klubak** 2004ra arte luzatu zuten elkarlanerako hitzarmena. Jende berriak hartu zuen etapa berriko ardura. Lutxi Arregik bozeramaile moduan, eta Lorena Basalok eta Maitena Zubiak osatzen dute taldea.



**ARITZA MONASTERIO**

**200 1 eko jarduera alpinorik onenarekin saritua**
Perun bizi den mendizale elgoibartarrak Peruko Mendikate Zurian dagoen Siula Grande (6.356 m.) mendiaren mendebaldeko horman zabaldutako bide berriari esker irabazi zuen 2001eko jarduera alpinorik onenaren saria.



**IÑIGO LARIZ**

**Cafes Baque afizionatu taldeak fitxatu zuen txirrindulari elgoibartarra**
Jubenil mailan hainbat garaipen lortu ostean, afizionatuetara jauzi egin zuen Irirgo Lariz txirrindulari elgoibartarrak. "Cafes Baque" Durangoko taldeak fitxatu zuen, afizionatu mailako talderik onenetarikoak, alegia.

Ekoris
Aholkularitza Juridikoa & Ekonomikoa
Mendarozabal Industnaldea zig
Tarteko solairua 28
Tel.: 943 75 52 24 • Faxa: 943 75 52 32
20850 Mendaro
- Abokatu zerbitzuak
- Kontabilitatea
- Nominak
- Aseguru Sozialak
Zorionak eta Urte Berri On!

Brontze eta Mekanizazio lanak
Arriaga auzoa
Tel. 943 742 807

BRONCES GARITANO, S.A.
Urte Berri On guztiol!
Olaso kalea, 15 . 20870 ELGOIBAR • Tel: 943 74 41 25/74 41 26

Malapeta taberna
eguneroo 7:00etan irekitzen dugu
San Frantzisko, 60
tel.943 74 19 43



# MARTXOA



**Martxoak 4**
**BILUZIK SEXOLOGIA ZERBITZUA MARTXAN**



**Martxoak 7**
**HAIZEA EMAKUME TALDEAK ERAKUSKETA ANTOLATU ZUEN HERRIKO EMAKUMEEKIN**




**Martxoak 11**
**22. BIENALA**
22. bienala ospatu zen Bilbon, eta Elgoibarko enpresen partaidetza handia izan zen.

IDARRAGA
KAFEAK
Eguneroko errealdiak
Zorionak eta Urte Berri On!
San Frantzisko 17. Tel. 943 74 05 33-36 39

HERRI-GAIN
ERRETEGIA
San Pedro auzoa, 4
17 943 74 30 40 ELGOIBAR



**Martxoak 15**
**LAPURRETA BARRENEN**
600 euro eta bi argazki kamara.



**Martxoak 16**
**KONDIA ENPRESAK 50 URTE BETE ZITUEN**

## PEDRO AGIRREGOMEZKORTA



**Jose Mari Korta saria**
AGME enpresako zuzendariak Jose Mari Korta saria jaso zuen. 1948. urtean sortu zuten enpresa Jose Agirregomezkorta eta Sabin Mendikutek. 35 urte beranduago, 100 langile izatera iritsi dira, eta erreminta makinaren munduan, errematxadorak egiten liderrak dira.

## PATXI ALDABALDETREKU



**Elgoibarko Erreminta Makinaren lehendakaria**
Elgoibarko Erreminta Makinaren lehendakaria hil zen martxoaren 10ean. Aldabaldetreku debarrak, bizia makina erremintaren munduari eskaini zion.

## JOSE GURRUTXAGA



**Espainiako kros txapeldun**
Mintxeta Atletismo taldeko korrikalariak 80 urtetik gorakoen Espainiako kros txapelketa irabazi zuen martxoaren 17an. Gurrutxagak 48 minutu eta 25 segundu behar izan zituen 6.600 metrotako lasterketa amaitzeko.


PREZISIO MUNDU BAT
MYL
TALLERES MYL S.A.
Mendarozabal industrialdea,2-3 - 20850 **MENDARO**
Tel. 943 75 70 03 • Faxa: 943 757 130
E-posta:myl@myl.es http:www.myl.ws

INAZIO BEREZIARTUA MUSIKA ESKOLA
• **Inazio Bereziartua Musika Eskola**.
*Aurtengo Gabonetan musikaz gozatu benetan!*




**Apirilak 5**
**"ARTEA IKASBIDE" PROIEKTUA**
Herri Eskolako ikasle talde batek "Artea ikasbide" hezkuntza proiektua garatu zuen Guggenheim museoarekin elkarlanean.




**Apirilak 10**
**XIBEROA GARATZEN EGITASMOA**
Xiberoa garatzen egitasmoa jarri zen martxan Elgoibarren. 10.000 euro biltzea zen helburua guztien auzolanarekin.




ketUtf

**Apirilak 12**
**EUSKAL HERRIKO ITZULIA ELGOIBARREN**
Aitor Osa itziartarrak irabazi zuen Elgoibarren amaitu zen Euskal Herriko Itzulia.

J. olbe

LAUKETAK - MORTASAKETAK
BROTXAKETAK
NONIUS GRABATUAK

\(35-

GABON ZORIONTSUAK ELGOIBAR!

Sigma Industrialdea • Xixilion, 2 beheko solairua 9
Tel. 943 743 286 ELGOIBAR (GIPUZKOA)
talbe@euskalnet.net / www.albesl.com

DEBAPE
INPRIMATEGIA
kornunikazio grafikoa

- DISEINU GRAFIKOA
- OFFSET LITOGRAFIA
- FOTOKON POS IZIOA
- PUBLIZITATE DISEINUA
- ERA GUZTIETAKO IRAGARKI KOMERTZIALAK
- INPRESIO DIGITALA

7-0 d1312k eta nn
t -te Beln

Olaso industrialdea, 27 - **ELGOIBAR**
Tel.: 943 74 40 58 • Faxa: 943 74 41 78
E-posta: debape@telefonica.net

## PROTAGONISTAK




**Apirilak 12**
**BARREN-EK 400. ALEA KALERATU ZUEN**

### HARITZ IRIONDO

**Debarroko Pilota Txapelketa irabazi zuen**
Haritz Iriondo elgoibartarrak eta Goenaga azkoitiarrak osatutako bikoteak kadete mailako Debarroko Esku Pilota Txapelketa irabazi zuen. Finalean Eskoriatzako bikotea hartu zuten mendean, 22 eta 20.





**Apirilak 26**
**ATZERRITARRAK ELGOIBARREN EUSKARA IKASTEN**
Elgoibarren bizi diren atzerriko 8 ikasle euskara ikasten hasi ziren.



**Apirilak 22**
**ELGOIBARKO UDALAK ELKARLANERAKO HITZARMENA SINATU ZUEN BADIHARDUGU EUSKARA ELKARTEAREKIN.**

HERRI ESKOLA

*Eguberri*
*eta Urte berri On!*



**Maiatzak 3**
**SUTEAK ELGOIBARREN**
Bi sute izan ziren Elgoibarren: Hurbil eta Errezabal erre egin ziren, hala ere, kalteak ez ziren oso larriak izan.



**Maiatzak 18**
**ZEZENKETA**
Elgoibar eta Debako toreroak aurrez-aurre izan ziren. Tati, Txato eta Mekano toreroek sekulako ikuskizuna eskaini zuten.



**Maiatzak 31**
**ANBULANTZIA MEDIKALIZATUA EROSI ZUEN GURUTZE GORRIAK**



**Maiatzak 25**
**LEHEN DISTSURF BILKURA OSPATU ZEN ELGOIBARREN**

A K S.L.
MEMICATLIIIK
OLASO INDUSTRIALDEA 27
TEL. 943 74 85 73 • FAXA: 943 74 39 01
novak@menovak.com
20870 ELGOIBAR
Zorionak eta Eguberri On

AEPI
Txintxo
Gestio inmobiliarioa
jai zoriontsuak
San Bartolome, 2 behea
Tel: 943 74 34 65

## PROTAGONISTAK



### ZURIÑE POLO

**Iutxa libreko Espainiako txapelduna**
15 urteko elgoibartarrak Espainiako lutxa libreko txapelketa irabazi zuen maiatzaren 10ean. 2. urtez jarraian, Espainiako txapelduna izatea lortu du.



### SAMSUNG ELGOIBAR

**Nazional A mailara**
Areto Futbol taldea Nazional A mailara igo zen. Talde elgoibartarrak 6 puntu atera zizkion bigarren sailkatuari. Denboraldi honetan, Nafarroa, Errioxa eta Zaragozako taldeen aurka jokatuko dute.



### LUIS KORTABITARTE

**Nanga Parbateko espedizioan**
Elgoibarko mendizalea Nanga Parbateko espedizioan izan zen.


ITURRI
Taberna

Zorionak eta
Urte berri on

Foruen plaza, 5
TEL: 943 74 28 97

IDAMA

ILEAPAINDEGI MISTOA X MAKILAJEAK
X EMAZTEGAI/SENARGAIENTZAKO ORRAZKERAK
SOLARIUM-a

Urte Berri zoriontsua denoi!

Santa Ana, 7behea. Ir 943 74 40 26 ELGOIBAR

BaRREN



Ekainak 14
MINTXETAKO AIRE LIBREKO IGERILEKUAK INAUGURATU ZIREN.



Ekainak 14
ELGOIBAR EIBARREN GAINETIK JARRI ZEN INDUSTRIA ENPLEGUARI DAGOKIONEAN.



Ekainak 28
KOLEKTOREA JARTZEKO LANAK HASI ZITUZTEN DEBA IBAIAN.

PUB

Elgoibar

Urte Berri On!

BARovi

KARROZERIA
Olaso, 16
Tel. 943 74 31 04
20870 ELGOIBAR

abol zottioltsaati

SUKALDE eta KOMUNERAKO
ALTZAIZIAK

Pedro M. Urruzuno, 8 • Tel: 943 74 38 44

Gabiola
GESTORIA

• Ibilgailuak
• Garraioak
• Gai orokorrak

AXA
ASEGURUAK

San Frantzisko, 22 - Tel-Faxa: 943 74 07 97 - ELGOIBAR

*Zuskararentzat bidea* **ez** *da*

*erraza efa teuna;*

*hata eta suztiz arsitijko* da

**noizbait bere etorkizuna.**

**ffizkuntza** dusu **fierriak duen**

**benetako ondasuna;**

**Urte Berriak** *dakarkiota*

**geureari** osasuna



DEBABE UDAL EUSKALTEGIA

*y (Prispero*

*Tro& Wethachten und* ***ein G*** lites :N

Jahr

*,loyeux* *et* Bonne

*Me12, tlthtmas and* Aappy :New Icyr

INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES

Azkue auzoa, 1 - P.K. 37 (IMH) Tel. 943 74 40 40 Faxa 943 74 16 54
Web orria: www.ils.es / E-maila: ils@ils.es



Truk
Gabon zoriontsuak!
Argazki Erakusketa
abenduaren 23ra arte
Zure lanak hemen erakutsi nahi badituzu DEITU
San Frantzisko, 24
Tel. 943 74 26 21




BASURCO
Inmobiliaria AI-368
ZURICH
ASEGURUAK
ZURICH ASEGUROAK
BASURCO
Deba kalea, 2 behea • Tel.: 943 748 013 • Faxa: 943 748 135
urte berri on

Muruamendiaraz
ELGOIBAR
San Bartolome, 34-35 · Tel. 943 74 03 45



**Muruamendiaraz** gozotegiak
Gabon jai gozo-gozoak
opa dizkizue herritar guztioi.





Urte Berri On!

# ZELETA BARAZKIAK

**NEKAZARITZA TRADIZIONALA eta BABESTUA**

- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Bertako produktuetan erantzum gertukoena

*Gabon zoriontsuak!*

EUSKO LABEL
KALITATEKO EUSKAL TOMATEA
KALITATEA

EUSKAL BASERRI

GERNIKAKO PIPERRA
KALITATEA

**ZELETA BASERRIA**
San vligel auzoa ELGOIBAR
Tef.: 609 35 76 19

Etxe barruko arotz-lanak

Lurtra

Proiektu integralak egurrean

*Igor Isasmendi*
*Ander Alkorta*




Lekuz aldatu gara!



ATEAK
LEIHOAK
EGURREZKO SABAIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
EDOZEIN MOTATAKO ZORUAK
TARIMA ARTISTIKOAK
BARANDAK
BIGA FALTSUAK etab...

Santa Klara, 28 behea
**Tel. 943 74 40 50** Faxa. 943 74 30 86
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

Belauste9i
Baserria
JATETXEA



**Belaustegi baserria jatetxea**
San Migel Gaina z/g • Tel. 943 74 31 02

www.belaustegi.com

# 110011ARKO.UDAIIIROLIIRONATUKOI'

ELGOIBARKO UDAL KIROL PATRONATUA

# Bazkide egin zaitez!!

**Tef.: 943 74 44 15**




Finlandiar sauna

Sauna hezea





| | |
|---|---|
| - Banakakoa <18 | 67 € |
| - Banakakoa >18 | 77,55 € |
| - Jubilatua >60 | 77 € |
| - Familiarrak | 140,25 € |
| - Ezinduak | 59,95 € |
| - Unibertsitaria | 70,40 € |

*Abono familiarrean gurasoak eta 22 urte baino gutxiagoko seme-alabak sartzen dira, beti ere, langabetuak eta ikasleak badira.*

**Uva izpiak**



Bazkideek Zumaiako Zelai, Donostiako La Perla eta Zestoako bainuetxean beherapenak izango dituzte.





2003




## SPINNING-a

**aktibitate onuragarria**

- Bihotzarentzako
- Argaltzeko
- Sistema zirkulazioarentzako (retorno-venoso)
- Arnas aparatua
- Estresaren aurkakoa

**Mintxeta gimnasioan astean 2 egun**



Movell.n
sukaldeak - bainuak
P.M. Urruzuno, 10 - Tel. 943 74 37 66 - 20870 ELGOIBAR
www.movellan.com




BASKO RENT
GARBIKETA • MANTENIMENDUA
AUTOEN ALOKAIRUA
Sigmako industrialdea - 7. eta 8. pabiloiak
Tel.: 902 103 287
MANTENDU EZAZU ZURE AUTOA GARBI ETA PREST!
KONPONKETA TAILERRA
GARBIKETA
2,50 €
GARBIKETA
AUTOIVIATIKO PUBLIKOA
MANTENIMENDU OROKORRA • OUO, BALAZTA eta PNEUMATIKOEN ALDAKETA
BARRUKO GARBIKETA INTEGRALA
GARBIKETAA BE
4, 50 €
1
GARBIKETA
LEHORKETA
ARGIZARIA EMATEA
3,50 €
SIGMAKO INDUSTRIALDEAN GAUDE


sigma
atetxea
kafetegia
Gosariak
Eguneko menuak
Enpresentzako menuak
jaunartze eta bataioak
Asteburuko menuak
Xixilion Kalea, 1 zenb. Tef. 943 74 85 31 20870 ELGOIBAR


BIZITZA ASEGURUAK
San Frantzisko, 40
Tel.: 943 74 05 82-943 74 14 04 Faxa: 943 74 17 07
